

MERKATARITZAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Amara Berriko eta Egiako merkataritzari buruzko MOZIO hau aurkezten du Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2015ko urriaren 19ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014ko abuztuaren 1ean, Merkataritza eta Turismo sailburuordeak argitaratuko ebazpenaren bidez, Donostiako merkataritzaren lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasun arloko estrategia zonalak bultzatzera zuzendutako laguntzen deialdia argitaratu zen.

Donostiako Udalari dagokionez, zuzkidura ekonomikoa 51.750 eurokoa da. Deialdiaren barnean Donostiako Udalak egin beharreko esparru-akordioan honako jarduera hauek aurreikusi ziren, besteak beste: *Eremu komertzialak definitzeko azterketa. 6.1d) art. Egiarako eta Amara Berrirako eremu komertzialak egituratzeko eta identifikatzeko azterketa.*

2015ko urtarrilean bi eremuen diagnostikoa eginda zegoen, eta plangintza -Amara Berrikoa, adibidez- nahiko aurreratuta utzi zuen maiatzerako aurreko Udal Gobernuak. Nahiz eta zinegotzi ordezkariak hori esan, irailerako ez da martxan jarri.

Merkataritza Aholku Kontseiluak azaroan egindako bileran, Amara Berriko eta Egiako plangintzei buruz hainbat argibide eman ziren, baina egia esan, denbora aurrera doa eta ez dira gauzatzen ari.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen Amara Berriko eta Egiako merkataritza planak implementa ditzala.

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia